II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Jendaurrean jartzea zergadunen errolda eta zaborra biltzeko tasaren kuotak, eta kobratzeko moduan jartzeko aldia

Behin onetsita zaborrak biltzeko tasaren zerga errolda, 2020ko bigarren seihilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak edo alegazioak egin ahal izan ditzaten 15 egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitzat joko da, eta kobratzeko aldia hasiko da.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2021eko otsailaren 4tik apirilaren 6ra.

B) Betearazte aldia: 2021eko apirilaren 7tik aurrera betearazte aldia hasiko da, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Eltziegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2020ko abenduaren 16a

Alkatea
LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2021.01.04 06:53:30 Z